

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Zulueta Uribe

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1921)*

Aurkibidea



Biografia



Gaur egun Nafarroa etorbidea izenarekin ezagutzen den “Calle Estación” en jaio zen. Aita Arrasate kalekoa zen eta ama Zaldibar auzoko Ale baserrikoa. Herriko eskola publikoan hasi eta Abadetxeko ikastolan jarraitu zuen ikasten. Hamaika urterekin Bergarako “Escuela Elemental de Trabajo” n hasi zen, baina gerrak eskolara joatea eten zuen. Militarrek Zerrajera lantegia militarizatu zuten gerra jaurtigaiaik ekoizteko, eta bertan hasi zen lanean Joxe. Lantegia zibil erara itzuli zenean, Zerrajerako “Escuela de Aprendices” en Industri Maisutza ikasi zuen. Zerrajeran bertan tailerburu lanetan jardun zuen jubilatu zen arte. Gerran lau urteko anaia eta lehengusina bat galdu zituen, klean erori zen bonba baten ondorioz. Etxetik ihes egin eta amaren jaiotetxean babestu ziren, gerra-tokia herritik urrundu zen arte. Arrixan (Arriaran) baserriko Elbira Berriotxoarekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.

Zintak

ARR-177

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-07
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Anaia eta lehengusina bonbak jota hil

- **Erref:** ARR-177/003
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:07:39. **Bukatu:** 00:09:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bonba batek etxea zulatu zien eta anaia eta lehengusina bonbardaketan hil ziren. 1937ko martxoan berriz ere etxera itzuli zen.

Transkripzioa

-Ze rekuerdo daukotzu zuk, gerra denporakua?
 -Jolin.
 -Zuen etxien edo etxe inguruen bonbarik edo jausi zan?
 -Bai, geure etxien be bai. Bonba bat... jo auen ta etxien holakotxe bokete [...] haundi bat ein uskun, ta gero fan gitzen, ba, nire amen etxerutza.
 - [Alera]?
 - Bai, Ale. Hara fan gitzen. Ba bittartien, ba, han ezin leikien egon, ze tiruek beti "pom, pom" tiro danak hara [jatozan]. Eta gero, ba, hantxe egon gitzen hasta, militarrek jua arte, hasta... abanzie izen zan "el treinta y uno de marzo del 37", ta ordura arte han egon gitzen. Ta ordurako gero hormiai zera ipini utsien, tapau auen bere boketiori ta atzera etxera, bertara.
 -Etxe barrua ez eben apurtu bonbiak? Zulue bakarrik?
 -Ez. Zulue, pum! Ta zera. Eta gero nire anaia, bat, anai bat neuken lau urtekua, ta bonbardeuan hil zan.
 -Kontxo, han etxien jausi zan bonba horrek harrapau ein eben?
 -Bai.
 -Ta zer zan, zu baiño gaztiaua?
 -Bai. Nik ordurako... nik hamalau urte nauken... hamabost urte nauken nik!
 -Ta anaiek?
 -Anaiek lau, lau.
 -Lau urte? Joe. Ta bera bakarrik euen etxian edo?
 -Ez, kalien, hantxe zerien, kalien, hantxe etxe aurrien. Ta metrailliek...
 -(Senidea): Bera ta bere lehengusiña.
 -Bera ta beste lehengusiña bat.
 -Ha be umia?
 -Bai. Bai, ha be bost urte, sei urtekue, ez dakit.
 -(Senidea): Manueltxo.
 -Bai.

2. Zerrajera gerrarako materiala produzitzen

- **Erref:** ARR-177/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Unión Cerrajera"n gerrarako materiala produzitzen hasi ziren 1937ko udaberrian. Gazteak ere lanean hasi ziren orduan, gau eta egun.

Transkripzioa

-Gero sartu gitzen zerera. Gero e, eta gero militarrek jua zienien, hamen Zerrajería hasi zan proiektalak eitten. Proiektalak, artillerixarako. Proiektalak zeretako be bai, morteruendako be bai. Ta gero abiaziño bonbak, abiaziñuendako kontenedoriek eta... osea. Ta orduen sartu gitzen danok militarizaute, zegatik e...

-Baiña zu ondiok Zerrajeran hasi barik zeuntzen, ezta?

-E? Bai ba! Gu kalia...

-Elementaletik [...] atara eta...

-Ta sartu gitzen, e... Militarrek abanzien hasi zienien, gu sartu gitzen biherrien. Ta egunien itten gauen milla... tamañuak, zerena, proiektillenak zien "tamaño de siete y medio y seis y medio". Eta "siete y medio" itten gauen milla, ta "seis y medio" beste milla. Beste milla morteruendako.

-Egunian?

-Bai. Ta gau ta egun biharra, e. Eta jaixak eta danak. Orduen ez zan pekatu domeketan be eittia biharra! Klaro, "por la cruzada"... Badakitzu.

-(senidea): Horreaittik irabazi eben gerrie.

-Eliziek [buldak] emongo zittuen, ezta?

-Kruzadak, kruzadak. Dana libre.

-(senidea): Horreaittik irabazi eben Francok gerrie, hainbeste biher einda...

3. Zerrajeraren ekoizpena, zerralez gain

- **Erref:** ARR-177/009
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Unión Cerrajera"n zerralez gain, erramintak, butanoak, gupilak eta beste gauza asko egiten ziren. Lan-prozesua azaltzen du.

Transkripzioa

-Zu han "Escuela de Aprendices"en hasi ziñanian, ondiok be armak eitten... edo proiektalak eitten euzen Zerrajeran?

-Ez, a, bai ba! Ez, hasi gitzenien ez. Orduentxe itxi fabrikaziñuari ta treinta y nuevien gerria bukatu zan ta gu hasi gitzen eskolan.

-Eta gero ze produzitten jarraitu eben Zerrajeriak?

-E?

-Hortik aurrera Zerrajeriak ze produzitzen...

-A zerak, atzera gero serraillak eitten, ta zerien. Fuera. Ia gerriek ez auen biher, bonbaik ez auen biher ezetako.

-Eta zu ibilli ziñan orduan serraillak...

-Bai, serrailla, ta laminaziñuan ta, hor danien.

-Serraillak aparte Zerrajeriak beste ze lan, beste ze produkziño euki dau [...]?

-Zerrajeriek orduen eitten zittuen, kataloguen auken bi milla ta piku klase serrailla. Eitten zien "de todo". Hasta matxetiek, "caña de azúcar" ebaitteko Kubarako be bai.

-Oseake erraminttak be eitten zan orduan.
 -Bai. De todo.
 -Baiña aizkora ta atxur ta holakorik?
 -Ez. Hori Oñatin.
 -Klaro, hori guk eitten geben...
 -Hori Oñatin, Oñatin.
 -Baiña matxetiak be Oñatin be eitten zian.
 -E?
 -Oñatin be eitten ziala matxetiak.
 -Bai.
 -Ta zuek itten zittuein serraillak, matxetiak eta beste zer? beste erramintta klaserik?
 -Ez dot uste. Baiña asko. Klase asko.
 -Eta hor ze eitten zan, flejia ekarri eitten zan, edo bertan eitten zan flejia edo?
 -Ez. Bergaran, Altos Hornosen eitten zan flejia. O sea, totxua, ta gero laminau flejia. Hotzien... o beruen esan gure dot /gurot/. Beruen. Ta gero ekarten zan Zerrajerara flejia ta hor hotzien laminetan zan.
 -Gero serraillak eitteko.
 -Serraillak edo gure dana, ta klientiek be bai. Ta fabrikak be, fabriketara.
 -A, handik laminaziñoko asko eindda gero zueik hotzien zeueik eitten zotsain...?
 -Karo. Haik beruan. Han eitten zittun, fundiduten auen, totxuak atara, eta gero laminau eitten auen. Beruen. Labien eukitta, gori-gorixa zala, zera, laminau. Baiña gero harek, ha flejia ,egoten da neurrixak be karo... ta gero egoten da flejia kaskarilliekin ta zerakin. Ta gero hamen dekapetan zien azidotan haik rolluak, eta laminau, neurrixetara, enpresetarako.
 -Oseake, orduen, serraillak aparte laminaziñoko lanak...
 -A, bai, bai. Bueno, hamen eitten zien serraillak aparte gero gauza asko. Butanuak eta. Bueno. Ta erruberak kotxiendako ta.
 -Llantak?
 -Llantak.

4. Bergarara lagunekin taxian

- **Erref:** ARR-177/010
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

"Unión Cerrajera" militarizatua egon zen garaian, tarteka domeka arratsalderen bat libratuta, Bergarara joaten zen lagunekin taxia hartuta. Anekdotak bat kontatzen du.

5. Herrian mutil gazterik ez

- **Erref:** ARR-177/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:26:26. **Bukatu:** 00:27:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Herrian ez zegoen mutil gazterik, denak gerran zebiltzalako. Bera eta lagunak ziren herriko nagusienak eta neska-kontuetan ere libre ibiltzen ziren.

6. Inguruko tornuak zerrajerarako errekisatuta

- **Erref:** ARR-177/012
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:27:26. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

"Unión Cerrajera"n inguruko tornu denak errekisatu zituen eta ordu luzez lan egiten zuten.

7. Zerrajera militarizatua

- **Erref:** ARR-177/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:30:17. **Bukatu:** 00:32:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lantegia erabat militarizatua zegoen. Jantziak militarrek ziren eta koronel alemaniar batek jarraipena egiten zien.

8. Gerratik itzulitakoak, estraperloan

- **Erref:** ARR-177/015
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:37:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra garaian 500 lagun inguru zebiltzan lanean "Unión Cerrajera"n. Herrira bueltatuko asko estraperloan ibili behar izan ziren.

9. Langileak militar izendapenekin

- **Erref:** ARR-177/016
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:37:43. **Bukatu:** 00:39:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerrarako proiektilak egiten zituztenean, militarizatuta zeuden erabat. Uniformedunik egunerokoan ez zen egoten.

10. Oreja eta eskekoa

- **Erref:** ARR-177/017
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:39:29. **Bukatu:** 00:43:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Oreja ezkondu zenekoa gogoan du. Madrilen diputatua zen eta itzuli zenean, nagusi jarri zen "Unión Cerrajera"n, aitagarrebaren lekua hartuta. Anekdotak bat kontaktzen du Oreja eta eskeko baten ingurukoa.

11. Oreja eta Edurra fusilatuak

- **Erref:** ARR-177/018
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:43:51. **Bukatu:** 00:47:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Oreja eta Edurra izeneko bat (lanera bizikletan zihoan gizon bat) fusilatu zituztenekoa kontaktzen du. Rikardo Azkoagak ihes egitea lortu zuen erre kara salto eginda.

12. Errepublikak hezkuntza hobetu

- **Erref:** ARR-177/019
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:47:17. **Bukatu:** 00:51:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika etorritakoan, gurutzeak kentzeagatik protestan ibili ziren, norbaitek hala aginduta. Errepublikak irakasle tituludunak eta hezkuntzako azpiegiturak ipini zituen.

13. Bedia Antzokia

- **Erref:** ARR-177/022
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Bedia Antzokian antzerkia, dantzariak eta ikuskizun asko izaten ziren. Diktadura garaian pelikula bukatutakoan "Cara al Sol" kantatu behar izaten zuten.

14. Arrasateko preso eta fusilatuak

- **Erref:** ARR-177/023
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita eta osaba bat kartzelan egon ziren. Aita zerrajeran postu garrantzitsua zuelako askatu zuten. Beste asko fusilatu zituzten. Osaba tuberkulosiarekin etorri zen kartzelatik eta hil egin zen. Haurdun zegoen emakumea ere fusilatu zuten. Oiartzun eta Erreterria aldean hil zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com